

Aiton-amonen betebeharra familian

Seme-alabak zaintzeko aiton-amonengana jo edo beste formularen bat (hezkuntza zentroa, umezaina, etab) erabili duten gurasoak errudun senti daitezke, euren seme-alabei nahiko luketen adina denbora eskaintzen ez dietelako.

Gaurko gizartean aiton-amonen paperak “zeloak” sor ditzake gurasoengan, euren erara hezten dituztelako edo beraien bizitzetan “muturra sartzen” dutelako. Beldur horiek ulergarriak izan daitezke eta jarrera horiek saihesteko, garrantzitsua da hurrengo gogoratzea:

1. Gurasoek seme-alabei aiton-amonetikiko estima ona eta sendoa transmititu behar diete. Haiekiko harremana ez dute laguntzaile gisa bakarrik ikusi behar, baizik eta haurren heziketa-prozesuan ezinbesteko elementu gisa.

2. Ilobak zaintzen laguntza eskaintzen duten aiton-amonak baliagarriak eta baloratuagoak sentitzen dira; era berean, haurren gurasoak lasaiago daude eta seme-alabak pozik.

3. Gogoratu behar da aiton-amonak seme-alabek gurasoengandik jasotzen duten hezkuntzaren osagarri bat direla. Seme-alabek gurasoak behar dituzte, baita maitatuak, baloratuak, motibatuak direla sentitu ere. Seme-alaba bat zaintzea eta bere portaera orientatzeak suposatzen duen arduraren gurasoena izan behar da; izan ere, haurraren garapen psikologikorako oinarritzkoa da familia giroan bizitzea.

Gurasoentzako gomendioak	Aiton-amonentzako gomendioak
<ul style="list-style-type: none">- Aiton-amonen lana baloratu eta eskerrak azaldu. Hezkuntzan oso laguntza handia ematen dute.- Gatazka bat eman baino lehen, euren eginkizunak zehaztu.- Entzun eta euren iritziak errespetatu, nahiz eta aurrera ez eraman.- Seme-alabei aiton-amonen irudi positiboa eskaini eta nagusiak errespetatzen irakatsi.	<ul style="list-style-type: none">- Seme-alabek ilobei inposatzen dieten jarraibide eta ohiturak errespetatu, nahiz eta desberdinak izan.- Ilobak babestu eta zaindu, baina mugak ere jarri, haurrak tiranoak bihurtu ez daitezken.- Gurasoak ez kritikatu eta iloben aurrean beraietaz gaizki ez hitz egin.- Gurasoen bizipenak, oroitzapenak, argazkiak... transmititzea aurrera eraman daitekeen irakaskuntza hoberena da.

LABURPENA

Gaur egungo gizartean, non bikote gehienek etxetik kanpo lan egiten duten, ez da lan erraza seme-alabak hezte. Seme-alaben zaintzarako errekursoetariko bat aiton-amonak dira. Artikulu honetan aukera horren abantailak eta desabantailak aurkeztu nahi izan dira. Aukera hori oso aberasgarria izan daiteke baina, beti ere, familia taldeko kide bakoitzak bere eginkizuna eta bere aisialdi denbora zeintzuk diren argi badauka. Oinarrizkoa eta garrantzitsuena hau da: haurrei bai aiton-amonak eta bai gurasoak errespetatu behar dituela erakustea.

Dra. Ainhoa Manzano Fernández
Dr. Juan Luis Martín Ayala
ETXADI
Familia-Psikologia Unibertsitate-Zentroa
Centro Universitario de Psicología de la Familia